

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BILARKO UDALA

#### **Bilarko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren jakinarazpen kolektiboa jendaurrean jartzea eta kobratzeko aldia, 2022ko ekitaldiari dagokiona**

##### I. Jendaurrean jartzea.

Bilarko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari dagokion 2022ko kontribuzio errolda egin ondoren, errolda hori onartu egin da alkatearen maiatzaren 4ko 19/2022 Ebazpenaren bidez.

Erroldak jendaurrean egongo dira hamabost egun balioduneko epean, iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eragindako zergadunek aztertu eta, hala badagokio, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ahal izan ditzaten. Interesa dutenek espedientea udal bulegoetan aztertu ahal izango dute.

Erroldak eta haiei erantsitako likidazioak onesten dituen egintzaren aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio hura ebazteko eskumena duen organoari, hilabeteko epean, haiek jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

##### II. Kobratzeko aldia.

Borondatezko aldiko dirubilketa epea bi hilabetekoa izango da; hain zuzen ere, 2022ko maiatzaren 30etik 2022ko uztailaren 30era arte.

Borondatezko aldiari ordaintzeko epea amaiturik, ordaindu ez diren kuotetarako, betearazteko aldia hasiko da berez eta besterik gabe. Horrek berekin ekarriko du berandutze interesak eta dagozkien errekarguak eskatzea, Zergen 6/2005 Foru Arau Orokorrek 26. eta 28. artikuluetan ezarritakoaren arabera, bai eta premiamendu prozeduraren kostuak ere, bidezko denean.

Bankuetan helbideratutako ordainketetarako, zergapekoek ez dute inolako izapiderik egin behar; bankuan zordunketa egingo zaie 2022ko ekainaren 7an.

Helbideratu gabeko ordainketetarako, zergadunei udalaren bulegoetan entregatuko zaie ordainagiria, jendea hartzeko orduetan, udalak Kutxabanken edo Euskadiko Kutxan duen konturen batean ordain dezaten, dirutan edo transferentzia bidez.

Zergadunei ohartarazten zaie komenigarria dela beren zerga zorrak banketxe edo kutxetan helbideratuta izatea. Halaber, banku helbideratzeetako altak edo aldaketak, bai eta hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak ere, Bilarko Udalean izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Bilar, 2022ko maiatzaren 4a

*Alkatea*  
**ENRIQUE PÉREZ MAZO**